

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko irailaren 1a

98. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko laborategiak bateratzeari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egin (2. or.).

G saila:**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA****Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko laborategiak bateratzeari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko ekainaren 13an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko laborategiak bateratzeari buruzko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko ekainaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko laborategiak bateratzeari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina

AURKIBIDEA

I. Sarrera (3. or.).

II. Analisi klinikoen laborategiak O-NOZen (4. or.).

II.1. Bateratu aurreko egoera (4. or.).

II.2. Bateratzeko proposamena eta egungo egoera (4. or.).

III. Helburuak, norainokoa eta mugak (8. or.).

IV. Konklusioak eta gomendioak (10. or.).

IV.1. Bateratu ziren O-NOZeko laborategien gastuaren bilakaera (10. or.).

IV.2. Esparru-akordioaren berrikuspena (11. or.).

IV.3. Laborategiak bateratzeko prozesua eta egungo egoera (11. or.).

IV.4. Bateratzearen aurrezkiaren balioespena (11. or.).

IV.5. Laborategiak bateratzearen eraginkortasuna eta efizientzia (12. or.).

V. Egindako lanaren azterketa xehaketa (13. or.).

V.1. Bateratu ziren O-NOZeko laborategien gastuaren bilakaera (2011-2015) (13. or.).

V.2. Erreaktiboz eta laborategiko gainerako materialez hornitzeko esparru-akordioa (15. or.).

V.3. Nafarroako Laborategi Bateratua abiaraztea eta egungo egoera (18. or.).

V.4. Laborategiak bateratzearen ondoriozko aurrezkiaren balioespenaren azterketa (20. or.).

V.5. Laborategiak bateratzearen eraginkortasunaren eta efizientziaren ebaluazioa (22. or.).

I. eranskina. O-NOZeko laborategien 2011ko antolaketa-egitura (23. or.).

2. eranskina O-NOZeko laborategien 2014ko antolaketa-egitura (24. or.).

3. eranskina. Lanpostuen eta pertsonen abenduko kopurua, laborategietan gauzatutako eginkizunaren eta urteko gastuaren arabera (2011-2015) (25. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioak (26. or.).

Behin-behineko txostenari aurkeztutako alegazioei Kontuen Ganberak emandako erantzuna (26. or.).

I. SARRERA

2015eko urtarrilaren 12an, Parlamentuko Eledunen Batzarraren eskaera bat erregistratu zen Kontuen Ganberan, VIII. legegintzaldiko atxiki gabeko foru parlamentariak eskatuta. Bertan eskaizen zen gai honi buruzko txostena egitea:

“...Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko laborategiei dagokienez Osasun Departamentuak egiten duen gastuaren bilakaera, eta Nafarroako laborategi klinikoak bateratzeko proiektuaren eraginkortasunaren eta efizientziaren balorazioa...”.

Parlamentuko eskaerak honako informazio garrantzitsu hau zeukan, besteak beste:

“...2012ko martxoaren 7an, Nafarroako Gobernuak onetsi zuen APRO 60 Esparru-akordio bat abiaraztea, Nafarroako laborategi klinikoetarako odola ateratzeko eta proba analitikoak egiteko materialez hornitzekoa zein ekipo berriz zuzkitzekoa.

Hitzarmen horrek Nafarroako laborategi klinikoak finkatzeko eredu bat babestu nahi zuen, honako hau proposatzen zuena: Nafarroako Ospitaleguneko errutinako lau laborategiren, Tuterako Reina Sofia ospitaleko errutinako eta larrialdietako laborategi baten eta Lizarrako García Orcoyen ospitaleko errutinako eta larrialdietako laborategi baten ordeza, Tuteran eta Lizarran erantzun azkarreko bi laborategi eta Nafarroako Ospitalegunean laborategi bateratu bat ezartzea...

...Nafarroako Gobernuak Nafarroako laborategi klinikoak bateratzeko prozesua defendatu du eraginkortasun neurri gisa; izan ere, 6 eta 8 milioi euro arteko aurrezkia ekarriko du berekin urteko, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko laborategi zerbitzuan....”.

Eskaera hori Ganberaren 2015eko fiskalizazio-programara gehitu ondoren, auditoretzako bi teknikari eta auditore batek osatutako lantaldeak lana osatu zuen, Kontuen Ganberako zerbitzu juridikoen, informatikoen eta administratiboen laguntzaz, 2015eko azarotik 2016ko martxora bitartean.

Txostenak bost atal dauzka, sarrera hau barne; bigarrenean, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko laborategi klinikoak deskribapen orokor bat ageri da; hirugarrenak lanaren helburuak, norainokoa eta mugak biltzen ditu; laugarrenean ondorioak eta gomendioak aipatzen dira; eta bosgarrenean, azkenik, egindako lana zehazten da.

Eskerrak eman nahi dizkiegu O-NOZeko eta Osasun Departamentuko, Lehendakaritza Departamentuko eta Garapen Ekonomikorako Departamentuko langileei, lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

Nafarroako Comptos Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, lan honen emaitzak honako karguetan ziharduten pertsonei jakinarazi zitzaizkien, alegazioak aurkez zitzaizkien:

- Osasuneko kontseilari ohia.
- Osasuneko kontseilaria.
- O-NOZeko zuzendari kudeatzaile ohiak.
- O-NOZeko zuzendari kudeatzailea.
- Nafarroako Ospitaleguneko kudeatzaile ohia.
- Nafarroako Ospitaleguneko kudeatzailea.

Kontuen Ganberak ezarritako epearen barnean alegazioak aurkeztu dituzte O-NOZeko zuzendari kudeatzaile ohiak, Osasuneko kontseilari ohiak, Nafarroako Ospitaleguneko kudeatzaile ohiak, O-NOZeko zuzendari kudeatzaile ohiak eta Osasuneko kontseilariak.

Osasuneko kontseilari ohiak aurkeztu dituen alegazioek txostenean beren-beregi adierazten diren zenbait datu aldatzea eragin dute. Alegazio horiek eta besteak azalpenak dira, eta behin betiko txostenari erantsi zaizkio.

II. ANALISI KLINIKOEN LABORATEGIAK O-NOZEN

II.1. BATERATU AURREKO EGOERA

Laborategi klinikoek gizakien hainbat motatako lagin biologikoak analizatzen dituzte, gaixotasunak ikertzen, saihesten, diagnostikatzen eta tratatzen laguntzen dutenak. Hona hemen laborategi moten adibide batzuk: genetika, hematologia, biokimika, alergologia, anatomia patologikoa, mikrobiologia eta abar.

Ondoren bateratu ziren O-NOZeko laborategien (zerbitzutat jotzen dira) eta horien espezialitateen egitura txosten honen 1. eranskinean kontsultatu daiteke –Parlamentuko eskaerak mugatzen duen esparruaren barruan–. Hona hemen eranskin horretatik ondorioztatzen diren datuak:

Zentroa	Laborategiak	Laborategiko plantilla organikoko lanpostuak (2011)	Oinarritzko jarduera
Nafarroako Ospitalea	Hematologia eta hemoterapia Biokimika Mikrobiologia	95	Ospitaleratutako, larrialdietako eta arreta espezializatuko pazienteen zehaztapenak (Vianako Printzea Espezialitate Zentroa)
Bideko Ama Birjina ospitalea	Analisi klinikoak Hematologia eta hemoterapia	134*	Ospitaleratutako eta larrialdietako pazienteen zehaztapenak
San Martin Doktorea osasun zentroa	Analisi klinikoak		Oinarritzko laguntzako pazienteen zehaztapenak (Lizarrako eta Tuterako barrutietakoak izan ezik)
Ubarmin klinika	Analisi klinikoak	6	Ospitaleratutako pazienteen zehaztapenak
García Orcoyen ospitalea	Analisi klinikoak	26	Ospitaleratutako, larrialdietako eta oinarritzko laguntzako Lizarrako barrutiko pazienteen zehaztapenak
Reina Sofía ospitalea	Analisi klinikoak	42	Ospitaleratutako, larrialdietako eta oinarritzko laguntzako Tuterako barrutiko pazienteen zehaztapenak

(*) San Martin Doktorea osasun zentroko laborategiko lanpostuak Bideko Ama Birjina ospitaleari atxikita zeuden.

2011n espezialitate ezberdinetako bederatzi laborategi zeuden O-NOZeko sei zentrotan, eta, guztira, 303 lanpostu zeuden laborategiko jarduerak gauzatzeko, Foru Administrazioako plantilla organikoaren arabera.

Laborategi horietako lanpostuak bete zituzten langileek sortu zuten gastua 16,34 milioi euro ingurukoa izan zen 2011n.

Laborategien gastuaren funtsezko beste osagaia laborategiko errektiboaren eta materialaren kontsumoari dagokio: 12,95 milioi euro 2011n. Gastu hori 20 hornitzailek baino gehiagok sortzen zuten, laborategiek egindako 13 lehiaketatan adjudikazio-hartzaile izan zirenek.

O-NOZen txosten baten arabera, 2011n laborategiek 702.426 pazienteren 12,21 milioi zehaztapen analizatu zituzten (10,14 errutinakoak ziren, eta gainerakoak, aldiz, larrialdietakoak). Iruñeko barrutiko laborategiek jarduera horren % 80 inguru egin zuten; Tuterako eta Lizarrako barrutietakoek, berriz, % 13 eta % 7, hurrenez hurren.

II.2. BATERATZEKO PROPOSAMENA ETA EGUNGO EGOERA

Apirilaren 12ko 19/2010 Foru Dekretuak O-NOZeko Nafarroako Ospitalegunea sortu zuen, eta zerbitzuak bateratzeko prozesua faseka egingo zela ezarri zuen.

Zerbitzuen berregituraketa hori kontuan hartuta, egokitzen joan zen O-NOZeko laborategietako batzuk bateratzea; zehatz-mehatz, hasieran analisi kliniko, biokimika, hematologia eta hemoterapia, mikrobiologia eta parasitologia, eta immunologiaren espezialitateetako laborategiak bildu ziren.

O-NOZek laborategi horietako jarduera analitikoaren zerbitzua berrantolatu nahi zuen, hainbat helburu betetzeko asmoz; helburuon artean, honako hauek nabarmentzen dira:

- Laborategiek ematen dituzten zerbitzuak arrazionalizatzea.
- Prozesuak optimizatu eta estandarizatzea, ekipamendu teknologikoa berrituta.
- Sinergiak aprobetxatzea eta eskala-ekonomiak lortzea.
- Zerbitzuen katalogo bakarra ezartzea.

Nafarroako Ospitaleguneko hainbat zerbitzu bateratzeko lantalde batzuk sortu ziren 2011ko azken hiruhilekoan; horien artean, laborategietako lantaldea zegoen.

Laborategien beharrianak eta zerbitzu zorroak aztertu ondoren, antolaketa-eredu onena honako hau zela iritzi zen:

- Laborategi nagusi bat (Nafarroako Laborategi Bateratua izenekoa), Nafarroako Ospitalegunean kokatuko zena eta Iruñeko barrutiko asistentzia espezializatuko jarduera eta Nafarroako Oinarrizko Laguntzako jarduera osoa bere gain hartuko zituena, baita proba konplexuenak ere. Asmoa zen laborategi horrek zehaztapenak analizatzeko kate bat ezartzea; kate horrek jarduera errobotizatzea eta dauden langileak gutxitzea ekarriko zuen.

61 langile gutxitzea balioetsi zen: erizaintzako 21 langile (OLT-EUD), laborategiko 28 teknikari espezialista (LTE) eta 12 administrari.

- Tuterako eta Lizarrako ospitaleetako azkar erantzuteko bi laborategi; horiek premiazko probak, ospitaleratutako pazienteenak eta ospitaleetako kontsultetakoak hartuko zituzten beren gain.

Uste zen eredu berri horrek onurak ekarriko zituela Nafarroako biztanleentzat, bai efizientziaren hobekuntzaren eta aurrezki ekonomikoaren aldetik (2012ko azaroan Parlamentuan laborategiak bateratzeari buruz egindako agerraldian, Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak zenbatetsi zuen bateratzeko neurriaren aurrezki 7,33 milioi eurokoa izango zela urtean) bai asistentzia eskaintza homogeneoagoaren aldetik, parametroak, erreferentzia-balioak eta abar bateratuko baitziren.

2012ko maiatzean, esparru-akordioa sartu zen bateratzeko proiektu horren testuinguruan; honako bi helburu hauek zituen: errutinako laborategirako zein azkar erantzuteko laborategirako erreaktiboz hornitzea, eta ekipamendua, tutuak eta proba analitikoak egiteko bestelako erauzketa-materialez zuzkitzea. Asmoa zen lehendik zeuden lehiaketen eta hornitzaileen kopurua murriztea eta aipatutako aurrezki ekonomikoa lortzea. Kontuan hartu behar da mikrobiologia laborategiko materiala ez zela lizitaziorik izan, Lizarrako eta Tuterako ospitaleetako serologiari zegokiona izan ezik.

Hitzarmenerako proposatutako iraupena lau urtekoa izan zen (2016ko abendura artekoa, hain zuzen). Urteko lizitazio aurrekontua zortzi milioi eurokoa zen (BEZik gabe), eta hornidura 20 lotetan banatzen zen; horietatik 1. loteak kalkulaturako zenbateko osoaren % 65 hartzen zuen.

2012ko urrian 1. lotea adjudikatu zen, eta abenduan, berriz, gainerakoak, guztira 21 enpresari (20. loteak 62 produktu biltzen zituen, banan-banan lizitatzen zirenak).

Errekurtso batzuk aurkeztu ziren hainbat loteren adjudikazioaren kontra, baina horietako bat (20. loteko produktu bati buruzkoa, hain zuzen) baino ez zen onetsi zati batean.

Adierazitakoaren arabera, Nafarroako Laborategi Bateratua Bideko Ama Birjina ospitaleko eraikin nagusiko iparraldeko blokeko behe solairuan eta lehenengo solairuan kokatzen zen; une hartan eremu horiek larrialdi orokorrekin, ospitale horretako laborategiek, Zainketa Intentsiboen Unitateak eta ebakuntza-gelek okupatzen zituzten. Kokapen berriak erabilgarri ez egoteagatik edo hornituta ez egoteagatik zerbitzu horiek lekualdatu ezin zirenez, Ikerketa Biomedikorako Zentroa hautatu zen Nafarroako Laborategi Bateratua behin-behinean kokatzeko. Adierazitakoaren arabera, ez zegoen beste espazio erabilgarri egokirik, eta ez zegoen aurrekontu-krediturik eraikin osagarri bat egiteko. Erabaki hori hartu zen, nahiz eta Eskualde Garapeneko Europako Funtsetik (EGEF) diru-laguntza bat jaso ikerketa jardueretarako, Ikerketa Biomedikorako Zentroa eraikitzei atxikia.

Osasuneko kontseilariak 2013ko maiatzean Nafarroako Parlamentuan adierazi zuen bezala, Nafarroako Laborategi Bateratua 2015eko martxoan lekualdatzekoa zen. Hala eta guztiz ere, txosten hau egin den egunean oraindik ez da erabaki haren behin betiko kokapena.

Jarraian, laborategiak behin-behinean hartzen dituen Ikerketa Biomedikorako Zentroaren irudia dago.



2013ko martxoan laborategi bateratuen zerbitzuak Nafarroako Laborategi Bateratura fisikoki lekualdatzen hasi ziren, eta lan hori 2014ko urrian amaitu zen. Nabarmendu behar da kate bakarra ezarri zela biokimika, immunosaiakuntza, hematimetria eta koagulazio zerbitzuen jardura gauzatzeko. Jarraian, kate horren irudia dago.



Adierazi behar da mikrobiologia laborategi bateratua ez zela Ikerketa Biomedikorako Zentrora lekualdatu, espazioa falta izateagatik. Horrez gain, Lizarrako eta Tuterako ospitaleetako laborategiek jarduera berdina egiten jarraitzen dute.

Zerbitzuak bateratu eta Nafarroako Laborategi Bateratura lekualdatu ondoren, horien antolaketa-egitura txosten honen 2. eranskinean agertzen dena da.

III. HELBURUAK, NORAINOKOA ETA MUGAK

Parlamentuko eskaera kontuan hartuta, hauek dira lan honen helburuak:

- Bateratu ziren O-NOZeko laborategi klinikoen 2011-2015 aldirako zuzeneko gastuak kuantifikatzea.
- Erreaktiboz eta laborategiko produktuz hornitzeari buruzko esparru-akordioa, hori abiarazteko prozesua eta haren egungo egoera berrikustea.
- O-NOZeko laborategi klinikokoak bateratzetik ondorioztatutako aurrezkiaren balioespena aztertzea.
- Laborategiak bateratzearen eraginkortasuna eta efizientzia ebaluatzea.

Lana Espainiako Kanpo Kontroleko Organo Publikoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako eta Kontuen Ganberaren fiskalizazio-eskuliburuan jasotako sektore publikoaren auditoriari buruzko printzipioei eta arauari jarraituz gauzatu da; horien barruan, "Fiskalizazio operatiborako oinarritzko printzipioak" izeneko ISSAI-ES 300 araua eta "Betetzei buruzko fiskalizaziorako oinarritzko printzipioak" izeneko 400 araua aplikatu dira.

Gure lana egiteko, jarraian zehazten den informazioa aztertu dugu:

- Bateratu ziren O-NOZeko laborategi klinikoei zuzenean lotutako 2011-2015 aldirako kontusailen aurrekontu betearazpena, bai langileria gastuei bai ondasun arruntei eta zerbitzuei dagoki-ena.
- Eskaera txostenak, laborategi bateratuetako jarduerarako erreaktiboaren erosketari buruzkoak direnak eta aipatutako esparru-akordiotik datozenak.
- Kontsumo txostenak, bateratu ziren laborategien kostu zentroei egotzi zaizkien 2. kapituluko (ondasun arruntak eta zerbitzuak) gastuei lotutakoak.
- Foru Administrazioaren zerbitzuko langileen 2010-2014 aldirako plantilla organikoak.
- Laborategietako antolaketa-unitateetako langileria gastuak eta lanpostuak, giza baliabideen kudeaketarako SAP aplikazio informatikoaren bidez lortutakoak.
- O-NOZeko laborategi klinikoetan proba analitiko jakin batzuk egiteko erreaktiboz eta materialiez hornitzeko zein ekipamenduz zuzkitzeko esparru-akordioa egiteari buruzko espedienteak.
- Laborategiak bateratzeko espedienteak, besteak beste, honako hauei buruzko dokumentazioa biltzen duena: aurrezkiaren balioespena, prestakuntza, kudeaketa klinikoak, azpiegiturak, logistika, informazio-sistemak eta abar.

Lan hau egitean eragin duten mugek honako alderdi hauekin daude lotuta:

- *Aurrezkiaren balioespena*

O-NOZen aurrezkiaren balioespenari buruzko txostenak abiapuntu hartu du geroago esparru-akordioan gehitu ziren erreaktiboek 2011n izan zuten gastua. Ez da agertzen zifra horren jatorria, eta ezin izan da gastu hori kuantifikatu. Hori dela eta, ezin da iritzirik eman egindako balioespenen arrazoizkotasunari buruz. Hala ere, egindako balioespena aztertu dugu, baina beti aipatutako muga kontuan hartuta.

- *Bateratzearen eraginkortasunaren eta efizientziaren ebaluazioa*

Azterketaren xede diren laborategiek garatzen duten jarduera askotarikoa da, eta nabarmen aldatzen da urtero. Gainera, ez dago jarduera horren eraginkortasuna eta efizientzia neurtzen dituen adierazle egokirik, eta dauden informazio-sistemak ez dute ahalbidetzen daturik eskuratzeko parametro horiek neurtze aldera. Horren guztiaren eraginez, ezin dugu iritzirik eman bateratzea eraginkorra eta efiziente izateari buruz.

- *Langileria gastuaren kuantifikazioa*

Zuzeneko langileen gastua kuantifikatzeko, beharrezkoa zen jakitea zein pertsonak lan egin zuten laborategietan. Foru Administrazioako plantilla organikoetatik aurrera, laborategietako antolaketa-unitateak zehaztu ziren; ondoren, aztertutako urte bakoitzean zeuden lanpostuak kalkulatu ziren, giza baliabideen kudeaketarako SAP aplikazio informatikoaren bidez eta antolaketa-unitate horiek oinarri hartuta. Horren ondorioz, kasu guztietan lanpostu kopurua plantilla organikoko lanpostuen kopurua baino handiagoa zen, dokumentu horretan ez baitziren aipatzen zeuden egiturazko lanpostuak, atxikiak eta guardietarakoak.

Uste dugu O-NOZek antolaketa-unitaterako egiten duen atxikipena zuzena dela, baina akats batzuk (akats hutsalak, nolanahi ere) egon daitezkeela, gure txostenean aipatzen diren zifrak alda litzaketenak.

Bestalde, osasun zientzietako espezialitateetarako egoiliarak Irakaskuntzako antolaketa-unitateari atxikita daude. Horrenbestez, ezin izan da zehaztu zein ziren aztertutako aldiak laborategiei atxikita zeudenak.

- *Laborategiko gainerako gastuen kuantifikazioa*

Laborategiko materialaren eta bestelako ondasun arrunten eta zerbitzuen (arropa, mantentze-lanak eta abar) kontsumoa erabili da, bateratu diren laborategiei lotuta dagoena, SAP aplikazio informatikoko modulu batek, kontsumoa kostu zentroko esleitzen duenak, eman duen informazioa kontuan hartuta.

Zenbait kasutan egiaztatu da laborategiei egokitu beharko litzazkiekeen gastu batzuk esparru orokorreko kostu zentroei egotzi zaizkiela, baina ezinezkoa da zehaztea gastu horietatik zenbat dagokien laborategiei. Horregatik, gure txosteneko zifrak laborategiek gutxienez ere egin dituzten gastuak dira, oraindik egotzi gabe dauden zenbatekoak kuantifikatu ezin ditugula. Dena den, uste dugu gastu esanguratsuenak txostenean zehar aipatzen ditugun zenbatekoen barnean daudela.

IV. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

Egindako lanaren konklusio nagusiak aurkezten ditugu atal honetan, baita antzeman diren balizko hutsuneak hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak ere.

IV.1. BATERATU ZIREN O-NOZEKO LABORATEGIEN GASTUAREN BILAKAERA

Bateratu ziren O-NOZeko laborategiek honako gastu hauek egin zituzten 2011-2015 aldian:

	2011	2012	2013	2014	2015	Aldea (%) 2015/2011
Sortutako langileria gastua	16.337.194	14.765.541	15.919.040	16.276.713	16.538.807	1
Laborategiko materialaren kontsumoa	12.949.854	12.625.278	10.952.438	10.258.884	10.876.761	-16
Bestelako kontsumoak	937.776	986.929	874.290	1.220.489	1.172.445	25
Aplikazio informatikoen gastua	146.753	203.047	326.695	232.449	136.346	-7
Guztira	30.371.577	28.580.795	28.072.463	27.988.535	28.724.359	-5
Jarduera osoa (Iturria: O-NOZ)	12.241.670	12.444.264	12.855.720	13.568.966	14.382.627	17

Agertutako gastu zenbatekoak badira bateratu ziren laborategien kostu zentroei zuzenean esleitutako diru-kopuruak, SAP aplikazio informatikoaren arabera. Aplikazioko modulu hori ez da erabat osatu, eta laborategiei egotzi gabeko gastu erantsi batzuk daudela egiaztatu dugu, nahiz eta, gure ustez, gastu horiek oso esanguratsuak ez izan.

2011ren aldean, gastua % 5 murriztu zen 2015ean, batez ere laborategiko materialaren kontsumoak behera egiteagatik (% 16), esparru-akordioa egitetik ondorioztatutako prezioei esker; langileria gastuak, berriz, antzeko mailari eutsi zion. Gainera, kontuan hartu behar da gastu horri aplikatu beharreko BEZ mota nabarmen aldatu dela aldi horretan; izan ere, 2011n % 8 zen, eta 2015ean, berriz, % 21. BEZak gastu horretan daukan eragina baztertuko bagenu, bilakaera honako hau izango litzateke:

	2011	2012	2013	2014	2015	Aldea (%) 2015/2011
Laborategiko materialaren kontsumoa, BEZik gabea	11.990.606	11.690.072	10.141.146	9.326.258	8.989.059	-25

Ikusten denez, gastuaren murrizketa (BEZaren zerga-eragina kontuan hartu gabe) % 25ekoa da. Horrek eta jarduera % 17 gehitzeak gastuaren murrizketa hori proportzionalki handiagoa izatea eragin dute.

IV.2. ESPARRU-AKORDIOAREN BERRIKUSPENA

Esparru-akordioa 20 lotetan banatu zen; horietatik 1 lizitazio zenbatekoaren % 65i zegokion, baita balioetsitako jardueraren % 89ri ere.

1. lotea adjudikatzeko irizpideak honako hauek izan ziren: irizpide teknikoak (35 puntu), eskaintza ekonomikoa (50 puntu) eta hobekuntzak (15 puntu).

Nabarmendu behar da 1. lotea ez zitzaiola adjudikatu irizpide teknikoetan puntuazio hobea¹ eta eskaintza ekonomiko hobea zituen enpresari, enpresa horrek askoz puntuazio txikiagoa lortu baitzuen hobekuntzen atalean.

Gure ustez, errektiboz hornitzeko esparru-akordioa egitea bat dator kontratazio publikoari buruzko araudiarekin, haren alde adierazgarri guztietan. Hala ere, desiragarria izan zitekeen esparru-akordioa eraendu zuten baldintza-orrien hobekuntzen atalean baloratu beharreko alderdien zehaztasun eta xehetasun maila handiagoak egotea, kontuan hartuta 100 puntuko 15 ematen zituela eta funtsezko atala izan zela 1. lotea adjudikatzeko. Berrikusi diren aktetan adierazitakoaren arabera, txosten hau idatzi den egunean, funtsezko alderdi horietako batzuk ez dira erabat ezarri.

IV.3. LABORATEGIAK BATERATZEKO PROZESUA ETA EGUNGO EGOERA

Laborategiak bateratzeko prozesua abiarazteak eta errektiboz hornitzeko esparru-akordioaren ondoriozko aldaketak ezartzeak berrantolaketa eta berregituraketa eragin zituzten maila guztietan. Horretarako, ezarpenerako ahalegin handia egin behar izan zen, batez ere hasierako fasean, sortu ziren mota guztietako arazoak konpontzeko: gailu berrien funtzionamendua, informazio-sistemak, behar ez bezalako prestakuntza eta abar; gainera, Nafarroako Laborategi Bateratuaren behin-behineko kokapenaren hautaketak horiek guztiak baldintzatzen zituen.

Oro har, arazoak konpontzen joan dira denborak aurrera egin ahala, nahiz eta oraindik gora-beherak dauden eta esparru-akordioaren lote nagusiaren adjudikazio-hartzaileak eskaini zituen eta adjudikazioan erabakigarriak izan ziren hobekuntzen erdia osorik ezarri ez diren.

Uste dugu O-NOZek proiektuari egin dion jarraipena oro har bat etorri dela diziplina anitzeko lantaldeen sorrerarekin, horrelako garrantzia daukan proiektu batek berekin dakartzan aldaketa guztiak bere baitan hartu ahal izateko, nahiz eta horretan buruzagi jardun duen pertsonarik egon ez den.

Laborategiak bateratzeko hasierako proiektua ez da osatu, hainbat arrazoi direla eta:

- Lizarrako eta Tuterako laborategiek jarduera berdina egiten jarraitzen dute.
- Nafarroako Laborategi Bateratuak Ikerketa Biomedikorako Zentroan behin-behinean egoten jarraitzen du, horri buruzko erabaki irmorik egon gabe, nahiz eta, alde batetik, arrisku handia dagoen zentro hori eraikitzeke jaso zen EGEF funtsa itzultzeko eta, beste aldetik, esparru-akordioaren adjudikazio-hartzaileek lekualdaketa gastua beren gain hartu behar zuten, esparru-akordio hori urte honetako abenduan amaituko dela.
- Mikrobiologia laborategia ez zen Ikerketa Biomedikorako Zentrora lekualdatu, espazioa falta izateagatik, eta, zati txiki bat izan ezik, haren errektiboak ez ziren sartu esparru-akordioan.
- Laborategiko lanpostuak eta langileria gastua pixka bat gehitu dira. Hori dela eta, hainbat zerbitzutarako kate bakarra errobotizatzeari eta ezartzeari esker aurreikusten zen langileriamurrizketarik ez da lortu.

IV.4. BATERATZEAREN AURREZKIAREN BALIOESPENA

Laborategiak bateratzeko proiektuari buruzko espedientean 2015eko ekaineko txosten bat dago, O-NOZek egindakoa. Bertan esparru-akordio horren ondoriozko aurrezkia balioesten zen, 2014an eta 2015ean 7,5 eta 7,9 milioi eurokoa omen zena, hurrenez hurren.

¹ Osasuneko kontseilari ohiaren alegazioen ondoren aldatutako kontzeptua.

Ezin izan dugu egiaztatu balioespenerako oinarri erabili ziren zifren arrazoizkotasuna. Horregatik, ezin dugu iritzirik eman lortutako emaitzak egokiak ala ez izateari buruz. Gainera, hainbat akats eta hutsune antzeman ditugu txostenaren kalkulu metodologian. Ondorioztatu beharko genuke aurrezkia egon dela laborategiko materialen adjudikazioan lortutako beherakadagatik, baina ezin dugu hori kuantifikatu.

Ganbera honek uste du, laborategien baterakuntzak eragindako aurrezkia kuantifikatzeko, kontuan hartu beharko liratekeela beste parametro batzuk, errektiboaren erosketaren zentralizazioaz gain. Kontuan hartu behar ziren langileria gastuak (baterakuntzaren ondoren pixka bat handiagoak izan dira), aplikazio informatikoetako edo hondakinen kudeaketako gastuak, eta bateratu ziren laborategien jarduerari zuzenean lotutako gainerako kontsumoak.

IV.5. LABORATEGIAK BATERATZEAREN ERAGINKORTASUNA ETA EFIZIENTZIA

Laborategiek garatzen duten jardueraren eraginkortasuna eta efizientzia ebaluatzea ahalbidetzen duen adierazle egokirik ez egoteak eta lehendik dauden informazio-sistemen hutsuneek horri buruzko iritzia ematea galarazten digute.

Laburbilduta, laborategiak bateratzeko hasierako proiektua ez da osatu, ez baitago haren behin betiko kokapenean, Nafarroako Laborategi Bateratuak ez baititu gauzatzen aurreikusitako jardura guztiak eta langileak ez baitira gutxitu eginkizunak errobotizatutakoan. Egoera hori izanda, ezin dugu jakin bateratzea neurri eraginkorra eta efizientea izan den. Gainera, egon daitekeen aurrezkia errektiboaren erosketaren zentralizaziotatik eta ez bateratze hutsagatik sortu da.

Aurrekoa gorabehera, Ganbera honek uste du errektiboaren erosketaren zentralizatu eta laborategien artean zerbitzuetako zorroak, irizpideak eta parametroak bateratzea alderdi oso onuragarriak direla, osasun diagnostikorako eta arretarako oinarritzko jardura horren eraginkortasuna eta efizientzia hobetzen lagundu dezaketenak.

Egindako lanaren konklusioak aztertu ondoren eta, gainera, esparru-akordioaren babesean egindako kontratuak 2016ko abenduan iraungiko direla kontuan hartuta, honako hau gomendatzen dugu:

- *Baldintza-orrietan loteak adjudikatzeko aipatzen diren irizpideak ahalik eta zehaztasun handienarekin ezarri, ahalik eta informazio handiena emateko eta, ahal den neurrian, horri buruzko erreklamazioak edo errekursoak saihesteko.*

- *Erabaki bat hartu ahalik eta lasterren laborategien behin betiko kokapenari buruz, txosten honetan guztian zehar aipatu diren faktore guztiak (EGEF funtsaren balizko itzulketa eta horrek Foru Komunitatearen irudirako ekarriko dituen ondorioak, Ikerketa Biomedikorako Zentroaren baldintzak, ordezkio kokapenak eta abar) kontuan hartuta.*

- *Laborategietako medikuen eta teknikarien parte-hartzea izan, errektiboz eta laborategiko materialez hornitzeko hurrengo kontratuak eraenduko dituzten baldintza-orriak prestatzeko orduan, pertsona horiek baitira jardura hori gauzatzeko dauden beharrak ondoen ezagutzen dituztenak.*

- *Laster egingo den esparru-akordioaren hasiera-egunak behar bezala planifikatu, beste kokapen batera lekualdatzeko aukera eta hornitzailearen aldaketa kontuan hartuta, hala denean, horiek jardueraren ohiko garapenean izan ditzaketen ondorioak aurreikuste aldera.*

- *Laborategietako informazio-sistemak indartu, denboran konpara daitezkeen eta kudeaketa klinikoa zein ekonomikoa hobetzea ahalbidetzen duten datuak eskuratzeko asmoz.*

- *Adierazle egokiak ezarri, laborategietako jardueraren eraginkortasuna eta efizientzia ebaluatzea ahalbidetuko dutenak.*

- *Gastuak kostu zentroei egozteko formula hobetu SAP aplikazio informatikoan, gastu hori benetan eskatzen duen zentroa kontuan hartuta.*

- *Gastuak kostu zentroei egozteko irizpide egokiak ezarri eta horiei eutsi denboran.*

- *Tamaina handiko proiektu estrategikoetan bertako arduraduna edo koordinatzailea hautatu, ezarpenari eta horretarako egiten diren kontratuei jarraipena egiteaz arduratuko dena.*

V. EGINDAKO LANAREN AZTERKETA XEHAKATUA

Aurreko atalean azaldutako ondorioak lortzeko bidea eman digun lana aurkeztuko da ondoren, zehatz-mehatz.

V.1. BATERATU ZIREN O-NOZEKO LABORATEGIEN GASTUAREN BILAKAERA (2011-2015)

Bateratu ziren O-NOZeko laborategiek 2011-2015 aldian izan duten gastua honako hau izan da:

	2011	2012	2013	2014	2015	Aldea (%) 2015/2011
Sortutako langileria gastua	16.337.194	14.765.541	15.919.040	16.276.713	16.538.807	1
Laborategiko materialaren kontsumoa	12.949.854	12.625.278	10.952.438	10.258.884	10.876.761	-16
Bestelako kontsumoak	937.776	986.929	874.290	1.220.489	1.172.445	25
Aplikazio informatikoen gastuak	146.753	203.047	326.695	232.449	136.346	-7
Guztira	30.371.577	28.580.795	28.072.463	27.988.535	28.724.359	-5

2015ean gastua 28,72 milioi eurokoa izan zen; horietatik % 58 langileria gastuei dagokie, % 38 laborategiko materialari (erreaktiboak barne), eta gainerako % 4a bestelako gastuei (hala nola bulegoko materiala, arropa eta jantziak...). Osaera hori eta aztertu diren gainerako urteetakoak oso antzekoak dira.

2015eko gastu osoa 2011koa baino % 5 txikiagoa izan zen, nahiz eta osagaiaren arabera portaera ezberdina izan zen: bestelako kontsumoei dagokiena % 25 handitu zen, laborategiko materialari dagokiona % 16 murriztu zen, eta, azkenik, langileria gastuei dagokiena ia berdina izan zen.

Jarraian, osagai horiek zehatzago aztertuko ditugu:

LANGILERIA GASTUAK

Aztertutako aldian langileria gastuei lotutako adierazle esanguratsuenak honako hauek dira:

	2011	2012	2013	2014	2015	Aldea (%) 2015/2011
Laborategietako abenduko langileak	411	402	428	426	457	11
Aurrekontuari egotzitako gastua*	16.093.712	14.823.344	15.898.736	16.282.643	16.593.878	3
Sortutako gastua	16.337.194	14.765.541	15.919.040	16.276.713	16.538.807	1

* 2016ko aurrekontuan, 2015ean sortu ziren 114.982 euro agertzen dira egotzita.

Ikus daitekeenez, 2015eko abenduan, bateratzearen ondoren, 457 pertsonak lan egin zuten laborategi bateratuetan, hau da, 2011n baino % 11 gehiagok. Azterketa horretan kontuan hartu behar da kopuru hori ez datorrela bat lanaldi osoko langileekin, laborategietan lan egin duten pertsona guztiekin baizik, kontuan hartu gabe zenbat denboratan egon diren lanean.

Sortutako gastua 16,54 milioi eurokoa izan zen 2015ean, 2011ren aldean % 1 handitu zela.

Jarraian, aztertutako aldian laborategietako antolaketa-unitateetan lanpostu motaren arabera egon den osaera azalduko dugu:

Lanpostu mota	2011	2012	2013	2014	2015	Aldea (%) 2015/2011
O-NOZeko plantilla organikoko lanpostuak	303	302	299	297	285	-6
O-NOZeko egiturazko beharrianak	21	23	27	48	52	148
Lanpostu ofizialari lotutako lanpostuak	22	17	17	21	17	-23
O-NOZeko guardietarako lanpostuak	1	1	2	2	2	100
Orokorra, guztira	347	343	345	368	356	3

Plantilla organikoko lanpostuez gain, beste batzuk ere badaudela antzeman da. Horien artean, 2015ean egiturazkoak nabarmendu dira, neurri handian gehitu baitira.

Lanpostu guztien administrazio egoeraren arabera banaketak honako gastu hau sortu zuen:

Administrazio egoera	2011	2012*	2013	2014	2015	Aldea (%) 2015/2011
Funtzionarioak	11.902.056	11.396.442	11.745.276	11.106.499	10.602.177	-11
Administrazio-kontratupekoak	4.422.769	3.356.647	4.162.611	5.167.363	5.936.630	34
Lan-kontratupekoak	12.369	12.453	11.152	2.851	-	-
Orokorra, guztira	16.337.194	14.765.541	15.919.040	16.276.713	16.538.807	1

* 2012an abenduak aparteko ordainsaria kendu zen, 20/2012 Errege Dekretua betez.

2015ean, eta lanpostu motei buruzko datuekin bat etorruta, funtzionarioen gastua % 11 murriztu zen, 2011ren aldean; administrazio-kontratupeko langileena, berriz, % 34 handitu zen.

Gauzatutako eginkizunak kontuan hartuta, laborategietako antolaketa-unitateetarako diren lanpostuen bilakaera honako hau da:

Eginkizunaren deskribapena	2011	2012	2013	2014	2015	Aldea (%) 2015/2011
Laborategiko teknikari espezialistak (LTE)	151	153	154	172	155	3
Medikuak	70	67	73	80	73	4
OLT-EUD	64	66	61	62	68	6
Erizaintzako laguntzaileak	39	34	34	30	37	-5
Administrariak	20	20	20	20	20	-
Zeladoreak	3	3	3	3	3	-
Orokorra, guztira	347	343	345	368	356	3

Aurreko datuek laborategietako antolaketa-egituraren gutxi gorabeherako errealitatea agertzen dute; bertan ikusten da 2015ean langileen % 44k LTEen eginkizunak gauzatzen zituztela; % 21ek eta % 19k, aldiz, medikuen eta OLT-EUDen eginkizunak, hurrenez hurren. Nabarmendu behar da portzentaje horiek ia berdinak izan direla ebaluatutako aldi osoan.

Txosten honen 3. eranskinean gastuaren bilakaera azaldu dugu, eginkizunaren, abenduan lan egin duten langileen kopuruaren eta lanpostuen arabera.

Aurreko langileez gain, kontuan hartu behar da osasun zientzietako espezialitateetako egoiliarrek ere laborategietan lan egiten dutela. Mota horretako langile guztiak "Irakaskuntza" antolaketa-unitateari esleituta daudenez, ezin izan dugu zehaztu zein pertsonak gauzatu zuten beren jarduera laborategietan.

LABORATEGIKO MATERIALAREN ETA BESTELAKO ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN KONTSUMOA

Bateratu ziren laborategiei zuzenean egotzitako laborategiko materialaren eta bestelako ondasun arruntren eta zerbitzuen kontsumoaren banakapena honako hau da aztertutako aldian:

	2011	2012	2013	2014	2015	Aldea (%) 2015/2011
Laborategiko materiala	12.949.854	12.625.278	10.952.438	10.258.884	10.876.761	-16
Hainbat zerbitzu eta gastu	209.103	341.527	282.396	602.580	390.101	87
Erremintak eta tresnak	466.731	405.663	368.446	374.225	381.300	-18
Osasun arloko materiala	92.823	92.008	95.225	93.112	125.173	35
Bulegoko materiala eta inprimakiak	94.600	78.124	83.899	92.306	100.081	6
Konponketa eta kontserbazioa	26.383	28.051	14.725	28.627	120.852	358
Garbiketarako materiala	19.336	19.283	17.544	16.740	15.386	-20
Mantentze-lanak	28.799	22.273	12.055	12.892	39.146	36
Arropa eta jantziak				8	406	-
Guztira	13.887.630	13.612.207	11.826.728	11.479.373	12.049.206	-13

2015ean kontsumo guztien % 90 laborategiko materialerako izan zen, % 3 hainbat zerbitzu eta gas-tutarako, eta beste % 3 erreminta eta tresnetarako. Gainerako kontsumoek portzentaje txikiagoak izan dituzte.

Laborategiko materialaren gastuari dagokionez, nabarmendu behar da BEZ tasan egondako aldea; izan ere, % 8koa, % 10ekoa eta % 21ekoa izan da 2011n, 2014an eta 2015ean, hurrenez hurren. Zerga-eragin hori kenduko bagenu, gastu horren bilakaera honako hau izango litzateke:

	2011	2012	2013	2014	2015	Aldea (%) 2015/2011
Laborategiko materialaren kontsumoa, BEZik gabea	11.990.606	11.690.072	10.141.146	9.326.258	8.989.059	-25

Txosten honen III. epigrafean aipatu dugun bezala, horiek dira bateratu ziren laborategiei zuzenean egotzita agertzen diren kontsumoak. Hala ere, egiaztatu dugu badaudela laborategi horietako beste kontsumo batzuk, izaera orokorreko beste kostu zentro batzuei esleituta daudenak, baina ezin dugu bereizi guztien gainean zer-nolako proportzioa daukaten.

Gastu horien artean, bateratu diren laborategiei dagozkien batzuk zehaztu ahal izan ditugu, adibidez, horietako aplikazio informatikoei lotutakoak, dagoeneko aldeztu aurretik adierazi direnak. Eta, era berean, egiaztatu dugu beste gastu batzuk (adibidez, hondarrak kentzea) bakarrik esleitzen zaizkiela zuzenean Lizarrako eta Tuterako laborategiei; Nafarroako Laborategi Bateratuari dagokionez, kontzeptu horrengatik gastua "Nafarroako Ospitaleguneko Zerbitzu Orokorrak" kostu zentroari esleitzen zaio. Ez dakigu gastu hori laborategi bateratuei baino ez dagokien edo horren zati bat beste laborategi batzuei dagokien.

Antzeko egoera batean, bateratu diren laborategien beste gastu batzuk zehaztu ditugu (adibidez, laginak garraiatzetik ondorioztatutako gastua), kostu zentro horiei zuzenean esleituta ez daudenak. Izan ere, kontratu hori arautzen duten baldintza-orriek ezartzen dute, bateratu diren laborategietarako laginak ez ezik, beste laborategi batzuetarako laginak, pakete txikiak eta abar ere garraiatuko direla. Horrek gastu osoaren barnean dagokion zatia bereiztea oztopatzen du.

Gainera, antzeman dugu batzuetan gastuak kostu zentroei egozteko irizpideei ez zaiela hel-tzen aztertutako aldi osoan, horrek azterketa zorrotzagoa egitea eragozten duela.

Laburbilduta, O-NOZek oraindik osatu ez duenez kostu zentroetarako egozpena, zerbitzuek benetan eskatzen dutena, ezin dugu baieztatu hemen aipatu diren zifrak laborategiaren gastu guztiak direnik, nahiz eta uste dugun diru-kopuru horiek ez liratekeela neurri handian aldatuko.

V.2. ERREAKTIBOZ ETA LABORATEGIKO GAINERAKO MATERIALEZ HORNITZEKO ESPARRU-AKORDIOA

Laborategi bakoitzean hornitzaile ezberdinekin egindako lehiaketak zeudenez, 2012ko maiatzean argitaratu egin zen laborategiko materialen erosketak zentralizatuz aurrezki ekonomikoa lortzeko sortu zen esparru-akordioaren lizitazioari buruzko iragarkia.

Esparru-akordioa lau urterako proposatu zen: 2012tik 2016ra arte (abenduan amaituko da). Urteko haren lizitazio aurrekontua zortzi milioi eurokoa (BEZik gabe) da, eta Europar Batasuneko atalasetik gorako prozedura ireki baten bidez tramitatu zen. O-NOZen datuen arabera, lizitazio zenbateko horrek % 27ko beherakada zekarren, 2011ko gastuaren aldean.

20 lote ezarri ziren, lote bakoitzeko enpresa bakar bat hautatuko zela (1. eta 19. loteen artekoetarako) eta, 20. loteari dagokionez, horrek biltzen zituen 62 produktuetako bakoitzerako enpresa bat hautatuko zela aurreikusita. Nabarmendu behar da 1. loteak kontratuaren zenbateko balioetsiaren % 65 hartzen zuela.

Jarraian, baldintza teknikoan eta administrazio-klausulen baldintza-orriek zituzten alderdi adierazgarrietako batzuk zehazten ditugu:

- Enpresa lizitatzailerik ekipamendu plana zehaztu behar zuten beren eskaintzan, eskuratu nahi zuten lote bakoitzerako, ekipamendua haien konturakoa baitzen. Halaber, eskaintako ekipamendua eta zerbitzuak instalatzeko eta abiarazteko jarduketan berariazko plan bat eta kronograma bat aurkeztu behar zituzten, baldintza-orrietan adierazitako jardueraren aurreikuspena kontuan hartuta.

- Nafarroako Laborategi Bateratua behin-behinean Ikerketa Biomedikorako Zentroan kokatu zenean, aurreikusten zen behin betiko kokapenera lekualdatzeko gastu guztiak enpresa adjudikazio-hartzaileen konturakoak izango zirela eta aldaketa hori kontratua garatzen zen bitartean gertatuko zela.

- 1. loteari dagokionez, adjudikazio-hartzaileak lokalen egokitzapena eta horniketa gauzatu behar zituen hiru hilabeteko gehieneko epean, baita, kontratua amaitutakoan, lokalak jatorrizko egoerara itzultzeko behar ziren lanak ere.

- 1. loterako adierazten zen lan-kate erroboztatu bakarria instalatuko zela, biokimika eta immunosaiakuntza, hematimetria eta koagulazio zerbitzuak bilduko zituen.

- Adjudikazioa lortzen zuten enpresek beren informazio-sistemak O-NOZen sistemekin osatu behar zituzten.

- Enpresa lizitatzailerak proba bakoitzerako bermatutako errendimendua eta errektiboen keta adierazi behar zituzten beren eskaintzan, portzentajeka emana, baldintza-orrietan gutxieneko batzuk ezarrita zeudela. Sei hilean behin berrikuspenak egin eta gero, enpresek konpromisoa hartu behar zuten kosturik gabe errektibo gehigarri hornitzeko, gutxieneko mailaren eta beraien konpromisoaren artean zegoen aldea estaltzeko, baldin eta errendimendu txikia ez bazen sortzen laborategiek errektiboak edo ekipamendua txarto erabiltzeagatik.

- Kontratazio-mahaia honako hauek osatzen zuten:

- a) Mahaiburua: O-NOZeko Administrazio eta Zerbitzu Orokorretako zuzendari nagusia. Ordezkoa: Nafarroako Ospitaleguneko zuzendaria (kasu honetan, ordezkioak mahaiburutzat gauzatu zuen uneoro).

- b) Mahaikidea: Nafarroako Ospitaleguneko Administrazio eta Zerbitzu Orokorretako zuzendaria.

- c) Mahaikidea: O-NOZeko Hornidura Zerbitzuko burua.

- d) Mahaikidea: Osasun Departamentuko Ogasuneko kontu-hartzaile delegatua.

- e) Kontratazio Publikorako Batzordeak hautatutako kidea.

- f) Mahaikidea-idazkaria: O-NOZeko Aholkularitza Juridikoko Ataleko administrazio publikoko teknikaria (adar juridikoa).

- Honako hauek izan ziren adjudikazio irizpideak:

1. lotea

- a) Eskaintza ekonomikoa: 50 puntu, gehienez.

- b) Formulak aplikatuta automatikoki ebalua daitezkeen irizpideak: 10 puntu, gehienez.

- c) Aurkeztutako eskaintzaren kalitate orokorra: 25 puntu, gehienez. Atal horretan laborategian gauzatu beharreko jardueraren alderdi teknikoak sartzen ziren, baita instalazioak laborategiaren beharrezanetara egokitzeko proiektuaren egokitasunari buruzkoak ere.

- d) Aplikatu beharreko hobekuntzak: 15 puntu, gehienez. Honako balorazio azpi-irizpide hauek zehaztu dira:

Baloratu beharreko irizpidea	Gehieneko puntuazioa
Laborategia abiarazteko metodologia	4
Laborategia ezartzen laguntzeko metodologia	3
Produktibitatea hobetzeko eta errektiboen gastua kontrolatzeko irtenbideak	2
Laborategiaren eraginkortasun analitikoaren kudeaketa	2
Laborategiaren fase aurreanalitiko kontrolatzeko eta kudeatzeko irtenbideak	2
Laborategiko kontrol eta kudeaketa logistikorako irtenbideak	2

Gainerako loteak

- a) Eskaintza ekonomikoa: 60 puntu, gehienez.
- b) Aurkeztutako eskaintzaren kalitate orokorra (alderdi teknikoak): 40 puntu, gehienez.

Espedientearen fiskalizazioaren honako alderdi hauek nabarmentzen ditugu:

- 35 enpresaren 273 eskaintza aurkeztu ziren. Hala ere, ez zen eskaintzarik aurkeztu 15. loterako, ezta 20. loteko produktu baterako ere.

- Adjudikazio irizpide tekniko batzuk ebaluatzeko², kontratazio mahaiak, bere lege gaitasuna erabiliz, hainbat txosten tekniko egiteko eskatu zuen, eta horrek bere gain hartu zituen, haien balorazioa egite aldera.

1. lotea dela eta, eta hobekuntzen balorazioari dagokionez, kontratazio mahaiak txosten tekniko bat eskatu zion mahaiako buruari, eta horrek *“irizpide subjektiboen txostena”* izeneko agiria prestatu zuen; kontratazio mahaiak bere gain hartu zuen hori ere.

- Nahiz eta hobekuntzen atalak irizpideen eta puntuazioen azpibanaketari buruz eska zitezkeen alderdi juridikoak betetzen zituen, desiragarria zen zehaztasun handiagoa erabiltzea, atal horretan baloratu beharreko alderdiak zehazteko orduan, haren puntuazioa % 15ekoa baitzen.

Adjudikazio-hartzailea izan ez zen enpresetako batek azalpenak eskatu zituen hobekuntza horien edukiari buruz, eta erantzunak ez zuen zehatz-mehatz zehaztu zer baloratuko zen, atal hori ebaluatu zuen irizpide subjektiboen txostenaren geroko edukiari lotzen badiogu.

- 1. lotearen adjudikazioa 2012ko urrian egin zen, eta honako hauek izan ziren horretarako lizitatzailerik lortu zituzten puntuazioak:

	1. enpresa	2. enpresa	3. enpresa	4. enpresa	Geh.
Irizpide teknikoak ³	28,35	26,36	30,56	23,11	35 ³
Eskaintza ekonomikoa	45,70	42,36	50,00	*	50
Aplikatu beharreko hobekuntzak	14,20	4,20	5,60	6,40	15
Guztira	88,25	72,92	86,16	---	100

* Irizpide teknikoetan³ 25 puntu lortu behar ziren, gutxienez. Hori dela eta, enpresa hori baztertuta geratu zen fase horretan.

- Nabarmendu behar da, “3. enpresa”k irizpide teknikoetako puntuazio onena³ eta eskaintza ekonomiko onena izan bazituen ere, ez zela adjudikazio-hartzailea izan, “1. enpresa”k baino askoz puntuazio txikiagoa eskuratu baitzuen aplikatu beharreko hobekuntzen balorazioan. Txosten hau idatzi den egunean, proiektuaren jarraipen akteak adierazten dute hobekuntza guztiak ez direla osorik ezarri (zehatz-mehatz, produktibitatea hobetzeko eta errektiboen gastua kontrolatzeko irtenbideak, laborategiaren fase aurreanalitikoak kontrolatzeko eta kudeatzeko irtenbideak, eta laborategiko kontrol eta kudeaketa logistikorako irtenbideak).

- Gainerako loteak 2012ko abenduan adjudikatu zitzaizkien 21 adjudikazio-hartzailei, eta bi lote eta 20. loteko zazpi produktu adjudikatu gabe geratu ziren.

- 1. loterako lizitatzaileretako bik adjudikazioaren kontrako errekursoak aurkeztu zituzten Kontratazio Publikorako Batzordearen aurrean; bi kasuetan errekurso horiek ezetsi egin ziren.

Ondoren, lizitatzaileretako batek gora jotzeko errekursoa aurkeztu zuen Osasuneko kontseilariaren aurrean, eta, horrek ezetsi eta gero, izapideak abiarazi zituen Administrazioarekiko Auzien Auzitegian, nahiz eta azkenean amore eman zuen.

- Gainerako loteei dagokienez, bi errekurso aurkeztu ziren Kontratazio Publikorako Batzordearen aurrean, eta horietako bat zati batean onetsi zen.

- Adjudikazioaren zenbatekoa 4,5 milioi eurokoa izan zen; horrek % 39,4ko murrizketa orokorra zekarren lizitazio zenbatekoaren gainean.

² Osasuneko kontseilari ohiaren alegazioen ondoren aldatutako kontzeptua.

³ Osasuneko kontseilari ohiaren alegazioen ondoren aldatutako kontzeptua eta datua.

V.3. NAFARROAKO LABORATEGI BATERATUA ABIARAZTEA ETA EGUNGO EGOERA

Hurrengo taulak eskematikoki agertzen ditu 1. lotearen adjudikazio-hartzaileak Ikerketa Biomedikorako Zentroa egokitzeko eta bateratu ziren laborategi gehienak kokapen horretara lekualdatzeko gauzatu zituen jarduketak.

Data	Gertaera
2012ko azaroa	ABBOTTek espazioak banatzeko proposamena aurkeztu zuen Nafarroako Laborategi Bateraturako, akordioaren lote garrantzitsuenaren ordezkaria zen aldetik.
2013ko martxoa	Nafarroako Laborategi Bateratuaren jardura abiarazi zen, Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko larrialdietan.
2013ko maiatza	ABBOTTek obrak abiarazi zituen Ikerketa Biomedikorako Zentroko lehen solairuan, errutinako laborategia ezartzeko (baldintza-orrien arabera, gauzatze epea hiru hilabetekoa zen), Iruñeko Udalaren lizentziak eta baimenak eskuratu ondoren.
2013ko ekaina	Doctor San Martín Zentroko jardura Nafarroako Laborategi Bateratura lekualdatu zen.
2013ko uztaila	Ikerketa Biomedikorako Zentroko egokitzapen obrak amaitu ziren.
2013ko iraila	CORE laborategia edo laborategi zentrala abiarazi zen, Bideko Ama Birjina Ospitaleko Biokimika jarduerarekin.
2013ko abendua	Instalazioetako lanak amaitu ziren lehen solairuko zati batean.
2014ko urtarrila	Nafarroako Ospitaleko eta Bideko Ama Birjina Ospitaleko Hematologia Zerbitzuak lekualdatzen hasi ziren.
2014ko martxoa	Nafarroako Ospitaleko Biokimika Zerbitzua CORE laborategira lekualdatu zen.
2014ko urria	Hematologia Zerbitzuaren lekualdaketa amaitu ziren.

Bateratzeak honako aldaketa adierazgarri hauek ekarri zituen berekin: zerbitzuek bat egitea, funtzionalki eta fisikoki berrantolatuta; ekipamendu teknologikoa berritzea, jardueraren zati handienerako hainbat zerbitzu integratzen zituen kate bakarra ezarrita; eta erreaktibo hornitzailea aldatzea, aldi berean aplikazio informatikoetan eta informazio-sistemetan aldaketak egitea eragin zuena.

Prozesu hori ikuskatzeko, denboran zehar, jarraipen batzordeak eta lantaldeak sortu ziren, eta aldizkako bilerak egin ziren adjudikazio-hartzailearekin; horren guztiaren aktak daude aztertutako espedientean. Hala ere, ez zen arduradunik edo koordinatzailearik hautatu, kontratuaren betetze-mailari eta proiektu osoaren ezarpenari, oro har, jarraipena egiteko.

Bateratzeak berekin aldaketa asko ekarri zituen, hasieran arazoak sorrarazi zituen ezartzeko orduan. Berrikusitako aktetan adierazten denaren arabera, arazo adierazgarrienak honako hauek izan ziren:

- Etengabeko matxurak hainbat gailutan (pantaila, kalapatxak, alikuotatzailea, hozkailua, laginen tindatzailea eta abar). Horren ondorioz, laborategietako aurreko ekipamendua erabili behar izan zen, hau da, enpresa adjudikazio-hartzaileek emandakoa ez zena.
- Akats mekanikoak katearen funtzionamenduan: lagin batzuen tutuak erortzea; analizagailuen arazoak, lagin batzuk identifikatu gabe utzita; zenbait kontrol desdoitzea; eta abar.
- Hematologiaren arloa: tutuetako etiketen arazoak; erroreak koagulazio-pintzan edo tindatzailearen tenkagailuan; eta abar.
- Era askotako gorabeherak informazio-sistemetan: horien arteko konexiorik eza, horien akatsak etenaldiak eragin dituzte gailuetan eta kate osoan, eta abar. O-NOZek adierazi digunaren arabera, informazio-sistemen arteko beharrezko konexioak 2012ko eta 2013ko jardueraren datu historikoak galtzea eragin zuen.
- Arazoak “onestock hozkailua”ren instalazioan, funtzionamenduan eta edukieran, nahiz eta eskaeren kudeaketa erraztu behar zuen. Edukieraren arazoak gaur egun oraindik hozkailu propioak egotea ekarri du.
- Arazoak 1. lotearen adjudikazio-hartzaileari gorabeheren berri emateko orduan.
- Prestakuntza eskasa.
- Langileak kezkatuta eta atsekabe zeuden kateko lan-moduagatik, kontrolik eza, eguneroko lanaren arintasunik eza eta zirkuituen trazabilitaterik eza sentitzen baitzituzten, katean hainbat zerbitzu bateratzen baitziren lana oztopatuta...

Oro har, arazoak konpontzen joan dira, eta dagoeneko ez dira hasieran bezain maiz sortzen, oraindik horri buruzko gorabeherak badaude ere.

Proiektuaren egoerari buruzko 2015eko ekaineko txostenak ia amaitutzat jo zuen proiektuaren ezarpena. Dena den, adierazi zuen oraindik ezarri gabe daudela 1. lotearen enpresa adjudikazio-hartzaileak eskaini zituen hobekuntzen atalen erdiaren zenbait alderdi, adjudikazioan erabakigarriak izan zirenak (produktibitatea hobetzeko eta errektiboen gastua kontrolatzeko irtenbideak, laborategiaren fase aurreanalitiko kontrolatzeko eta kudeatzeko irtenbideak, eta laborategiko kontrol eta kudeaketa logistikorako irtenbideak).

Baldintza-orrian eskatutako errendimenduen jarraipenari dagokionez, adierazitakoaren arabera, 2015eko otsailean modu formalean abiarazi ziren errektiboen errendimenduei buruzko sei hilez behingo jarraipenak, baldintza-orrian ezartzen zen bezala. Nabarmendu behar da errendimenduari buruzko txostenek enpresek eurek ematen dituztela, egungo informazio-sistemek ez baitute aukerarik ematen informazio hori eskuratzeko. Data horretatik txosten hau idatzi den egunera arte, materialen itzultzeak eskatu dira 33.682 euroko zenbatekoan.

Horrez gain, nabarmendu nahi dugu arazo batzuk egon zirela laborategiak Ikerketa Biomedikorako Zentroan kokatzeari lotuta. Horien artean, honako hauek nabarmendu behar dira: espaziorik eza, argirik eza, hezetasuna, zarata, mugimendu errepikakorrak, temperatura, etab. Hutsune horiek hainbat erreklamazio eragin zituzten Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Zerbitzuaren aurrean, eta, ondorioz, zortzi txosten prestatu ziren; horietatik bat bakarra baino ez zen erreklamazioaren aldekoa izan, eta ez zuen biltzen prebentziozko neuririk. Gainerako txostenek 32 neurri zuzentzaile proposatu zituzten: horietatik 13 neurrizkotzat, 12 onargarritzat eta 7 garrantzitsutzat jo ziren.

Laborategia Ikerketa Biomedikorako Zentroan behin-behinean kokatzeari dagokionez, honako dokumentu hauek daude:

- EGEF funtsei buruzko txosten bat, Ikerketa Biomedikorako Zentroaren gastua, batera finantza daitekeena, 15.605.670 eurokoa dela adierazten duena; diru-laguntzak zenbateko horren % 50 estaliko luke, hau da, 7,8 milioi euro.

- Espainiako Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioaren txosten bat, laborategiak Ikerketa Biomedikorako Zentroa beranduenez 2015eko abenduaren 31ra arte okupatu ahal duela ezartzen duena. Data hori atzeratu zen, proiektuak 2017ko martxoaren 31n amaitzeko jarraibide berriak kontuan hartuta.

Laborategia lekualdatu ezean, jasotako diru-laguntza itzuli beharko litzateke. Itzuli beharreko zenbatekoa EGEF funtsen kudeatzaileen erabakiaren mende egongo litzateke; izan ere, zenbateko osoa ala laborategiek Ikerketa Biomedikorako Zentroan okupatu beharreko zatiari dagokion zenbatekoa baino ez itzultzeko eska lezakete. Txosten hau idatzi den egunean, ez dakigu zein den zenbateko hori.

- O-NOZeko Obra Zerbitzuaren plan funtzionalari buruzko txosten bat, laborategien behin betiko kokapenerako hainbat aukera baloratzen dituena:

- a) Bateratu diren laborategiak hartzeko instalazio berri bat, 16,1 milioi euroko gutxi gorabeherako kostua eta 46 hilabeteko gauzatze epea dituena.

- b) Mikrobiologia izan ezik, laborategia Ikerketa Biomedikorako Zentrotik Bideko Ama Birjina Ospitaleko instalazioetara lekualdatzea, 8,9 milioi euroko gutxi gorabeherako kostua eta 37 hilabeteko gauzatze epea dituena.

- c) Aurreko atalean bezala, laborategia Ikerketa Biomedikorako Zentrotik (beraz, Mikrobiologia gehitu gabe) Nafarroako Ospitaleguneko larrialdietarako eraikin berrira lekualdatzea, 8,1 milioi euroko gutxi gorabeherako kostua eta 31 hilabeteko gauzatze epea dituena.

Oso deigarriak dira egindako balioespenak, kontuan hartzen badugu Ikerketa Biomedikorako Zentroak, 9.943 m² erabilgarriko azalera duenak, 21,15 milioi⁴ euro balio izan zuela (obrak % 27ko beherakada izan zuen lizitazio prezioaren gainean, baita % 11ko desbideratzea ere adju-

⁴ Zenbateko horrek barnean hartzen zituen proiektua, laguntza teknikoa, obraren zuzendaritza, obra, ekipamendua, biltegiaren behin-behineko kokapena eta bestelako gastuak.

dikazioaren gainean) eta Bideko Ama Birjina Ospitalean eta larrialdietarako eraikin berrian okupatu beharreko azalerak 3.494 eta 3.660⁵ m² erabilgarri direla, hurrenez hurren.

2015eko ekainean Espainiako Ogasun eta Administrazio Publikoetako Ministerioko ordezkari batzuek Ikerketa Biomedikorako Zentroa bisitatu zuten, eta instalazioak berrikusi zituzten. Ondorio gisa adierazi zuten laborategiko jarduera ezin zela sartu Ikerketa Biomedikorako Zentroko jardueraren barnean.

Txosten hau idatzi den egunean, laborategiak Ikerketa Biomedikorako Zentroan egoten jarraitzen du. Horri dagokionez, O-NOZeko gerentziak eta Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentukoak adierazi digute oraindik ez dela hartu laborategiaren behin betiko kokapenari buruzko erabakia. Halaber, honako hau esan dute:

“...Zentzuzkoa da Ministerioarekin negoziatzea, bestelako edozein jarduera abiarazi baino lehen...Azkenean Ministerioaren iritzia kontrakoa bada, 2017ko martxoa baino lehen tramiteak abiaraziko ditugu, laborategiak Bideko Ama Birjina ospitale zaharreko bloke orokorrean erabilgarri dauden espazioetan kokatzeko proiektuaren idazketa adjudikatzeko...”.

V.4. LABORATEGIAK BATERATZEAREN ONDORIOZKO AURREZKIAREN BALIOESPENAREN AZTERKETA

2015eko ekainean, O-NOZek txosten bat egin zuen, laborategiak bateratzeak 2014rako eta 2015erako ekarri behar zuen aurrezkia balioesteko; aipatutako esparru-akordioko errektiboen gastua erabili zuen erreferentziazko neurri bakar gisa.

Txostenaren abiapuntua 2011n ondasun arruntetan eta zerbitzuetan laborategiei lotutako “gastu erreala” dira, 15,1 milioi eurokoak direnak. Uste dute gastu horren % 89 (13,4 milioi) laborategiko materialei (errektiboak) lotuta dagoela. Halaber, adierazi dute 13,4 milioi horietatik 10,99 esleitu ahal zaizkiela bateratu nahi ziren laborategiei; eta, gainera, 1. lotean eskaintzen ziren errektiboak eta gainerako loteak gastu horren zein zati zegokien zehaztu dute.

Horrez gain, laborategien 2011ko eta 2014ko jarduera erreala (zehaztapenak) kalkulatu da esparru-akordioan eskaintzen den lote bakoitzerako; 2015erako jarduera balioetsi da, 2014ko azken hiruhilekoko eta 2015eko lehen hiruhilekoko jardueraren batura biz biderkatuz.

1. lotea garrantzitsua zen, esparru-akordioaren zenbatekoaren % 65 eta laborategietako jardueraren % 89 hartzen baitzituen. Eta, garrantzi hori ikusita, lote horretarako aurrezkia balioetsi da zehatz-mehatz, eta gainerako loteak batera aztertu dira. Txostenak atera dituen emaitza garrantzitsuenak honako hauek dira:

	2011ko jarduera erreala	Gastu erreala 2011 (BEZa barne)	2014ko jarduera erreala	2015eko jarduera balioetsia	Jardueraren aldearen % 2014/2011	Jardueraren aldearen % 2015/2011	Adjudikazio prezioa (BEZik gabe)
1. lotea	9.163.434	8.200.039	10.841.069	11.509.372	18,31	25,6	2.868.458
Gainerako loteak	1.177.906	2.790.579	1.605.507	1.657.254	36,3	40,69	1.942.249
Guztira	10.341.340	10.990.618	12.446.576	13.166.626	20,36	27,32	4.810.707

Aurrekoa kontuan hartuta, 1. loterako eta gainerako loteetarako lortutako aurrezkia balioetsi da, esparru-akordioa egin ezean 2014an eta 2015ean egongo zen gastua (2011ko gastua jardueraren gehikuntzaz biderkatuta) eta esparru-akordioaren bidez egon omen dena (adjudikazio prezioa, jardueraren gehikuntzaren ondoriozkoa) erkatuta. Jarraian, 2014rako eta 2015erako lortutako emaitzak agertzen dira:

	2014		2015	
	1. lotea	Gainerako loteak	1. lotea	Gainerako loteak
Lehiaketaren aurreko prezioan balioetsitako gastua = 2011ko gastua + (2011ko gastua x jardueraren gehikuntza)	9.700.639	3.803.567	10.299.239	3.926.353
Lehiaketaren prezioan balioetsitako gastua = lotearen adjudikazio prezioa + (lotearen adjudikazio prezioa x jardueraren gehikuntza)	3.393.375	2.476.894	3.602.768	2.732.724
Aurrezkia	6.307.264	1.156.299	6.696.471	1.193.629

⁵ Osasuneko kontseilari ohiaren alegazioen ondoren aldatutako datua.

Hau da, 2014an lote guztien baterako aurrezkia 7,46 milioi eurokoa izan omen zen; eta 2015ekoa, berriz, 7,89 milioi eurokoa.

Aurrezkia balioesteko txosten horretan honako hutsune hauek antzeman dira:

- Aurrezkia balioesteko parametro bakarra errektiboen erosketaren zentralizazioa da. Hori dela eta, emaitzek ez dute islatuko zerbitzuen berrantolaketatik datorren aurrezkia, esparru-akordioa egitearen ondoriozkoa baizik.

- Ez zen adierazi nola kuantifikatu zen jarduera esparru-akordioan sartuta zeukaten laborategietako errektiboen 2011ko gastua, ezta nola esleitu zitzaion lote bakoitzari ere. Era berean, ezin izan digute eman errektiboen kodeen 2011ko zerrendaren eta esparru-akordioa egin ondoren esleitutakoaren arteko elkarrekotasuna. Horregatik guztiagatik, ezin dugu baieztatu abiapuntuko zifrak egokiak direnik.

- 2011ko gastuak BEZa (% 8) du barnean; erabili diren adjudikazio prezioek, aldiz, ez (tasa % 10 zen 2014rako eta % 21, berriz, 2015erako). Horrenbestez, zifra horiek ez dira konparagarriak.

- Ez dago justifikatuta gastua linealki handitzea jardueraren proportzio berean.

- 1. loteko zehaztaperen baten 2014ko jarduera bikoiztuta dagoela antzeman da. Horrek esan nahi du egindako zehaztaperenak baino 305.814 gehiago hartu direla kontuan.

- Jardueraren batez besteko gehikuntza erabili da lote bakoitzerako, nahiz eta bakoitza hainbat zehaztaperen motak, ez zentzu berean ez proportzio berean zertan aldatu ez daukatenean, osatuta dagoen.

O-NOZek emandako datuen arabera, 2015ean jarduera % 17 handitu zen, eta ez % 25, aztertutako txostenean balioetsi zen bezala. Horrek urte horretarako kalkulaturako aurrezkia txikiagotzea ekarriko luke.

- Kontuan hartuta 18. lotea eta 20. loteko produktu batzuk adjudikatu gabe geratu zirela eta 19. lotean azkenean lizitazioari uko egin zitzaioela, akastun doikuntza batzuk egin ziren lote horien adjudikazio prezioan: adjudikazio denboraren okerreko kalkulua, zenbait kasutan BEZa gehitzea, baztertutako loteen zenbatekoak ez kentzea eta abar. Horiek guztiak batuta, adjudikazio prezioa 14.998 euro txikiagoa da.

- Txostena 2015eko ekainean egin zen, eta loteen gastuaren 2014rako balioespen bat erabili zen, nahiz eta urte horretarako gastu erreala izan eta datu horrek fidagarritasun handiagoa eman balioespenari.

Horrez gain, 2012-2015 aldirako esparru-akordioan sartutako errektiboen gastuaren bilakaera lortu dugu. Honako hau da:

	2012ko gastua	2013ko gastua	2014ko gastua	2015eko gastua
1. lotea	17.567	2.842.712	4.122.479	5.326.549
Gainerako loteak	82.822	1.263.826	1.934.588	2.172.702
Guztira	100.389	4.106.538	6.057.067	7.491.251

Datu horiek aztertuta, honako alderdi hauek azpimarra ditzakegu:

- 2012an gastua txiki-txikia zen, kontratuak urte horren amaieran sinatu baitziren. Hurrengo urteetan gastua handitzen joan zen, zerbitzuak Nafarroako Laborategi Bateratura gehitzen zihoa-zen neurrian. Halaber, kontuan hartu behar da aplikatu beharreko BEZ tasa % 8, % 10 eta % 21 izan zela 2012an, 2014an eta 2015ean, hurrenez hurren.

- Ezin ditugu datu horiek erkatu 2011koekin, aurretik adierazi den bezala espedienteen ez baita adierazi nola kalkulatu den zifra hori eta ezin izan baitigute horren berri eman.

- 1. lotearen 2014ko gastu erreala O-NOZek aurrezkia lortzeko balioetsi zuena baino % 9 handiagoa da; gainerako loteena, berriz, balioetsitakoa baino % 22 txikiagoa da.

Zehaztaperen mota guztietarako 2011ko gastuari buruzko datu egiaztaturik ez daukagunez, 2015ean Nafarroako Laborategi Bateratuan gastu eta jarduera handienak dituzten zehaztaperenen lagin bat hautatu da. Dena den, erakusten ditugun emaitzak ezin dira estrapolatu laborategiko

jarduera osora. Beharrezko errektiboak zehaztu dira bai esparru-akordioaren aurretik bai hori egin ondoren, baita Nafarroako Laborategi Bateratuko 2011rako eta 2015erako jarduera ere. Bi kopuruak lotuta, zehaztapen bakoitzeko gastua kalkulatu dugu, eta honako emaitza hau lortu dugu:

	Gastua		Jarduera		Zehaztapen bakoitzeko gastua		
	2011	2015	2011	2015	2011	2015	Aldea (%) 2015/2011
Tirotropina	267.533	309.082	213.639	201.855	1,25	1,53	22
Transferrina	130.478	169.651	125.701	124.826	1.04	1.33	28
Kolesterola, g	22.399	24.520	339.265	301.364	0,07	0,08	14
Ferritina	313.797	102.402	137.100	132.834	2.29	0.77	-66
Clauss fibrinogenoa	177.287	103.245	101.626	112.833	1.74	0.91	-41

Ikusten denez, zenbait kasutan errektiboaren erosketa zentralizatuak aurrezkoa ekarri du, baina beste kasu batzuetan ez. Gainera, kontuan hartu behar da BEZ tasaren eragina; izan ere, 2011n % 8 zen, eta 2015ean, aldiz, % 21. Gainera, nabarmendu behar da, zehaztapen bati dagokionez izan ezik, jarduera nabarmen murriztu dela.

Laburbilduta, azaldu diren mugak eta hutsuneak ikusita, ezin dugu iritzirik eman O-NOZek balietsitako aurrezki zifren egokitasunari buruz. Nolanahi ere, aurrezki hori, guk kuantifikatu ezin duguna, errektiboaren erosketaren zentralizazioagatik gertatu da, eta ez bateratzeko prozesuagatik.

Bateratzetik ondorioztatutako aurrezki aztertzeke, prozesu horri lotutako gainerako gastuak ere kontuan hartu behar ziren, hala nola langileak, hondakinen kudeaketa, aplikazio informatiboak eta abar.

V.5. LABORATEGIAK BATERATZEAREN ERAGINKORTASUNAREN ETA EFIZIENTZIAREN EBALUAZIOA

Egon omen den aurrezki errektiboaren erosketaren zentralizazioagatik gertatu da (baina ezin dugu hori kuantifikatu). Hala ere, horrek ez du esan nahi bateratzea efizientea izan denik, baizik eta erosketaren zentralizazioa izan dela efizientea.

Eraginkortasuna eta efizientzia neurtzea ahalbidetuko liguketen parametroetako bat honako hau izango litzateke: eskaera aplikazio informatikoan erregistratzen denetik (bidezko txostena emate aldera) emaitzak balidatzen diren arte igarotzen den erantzun-denbora. O-NOZek egungo datuak baino ez ditu, bateratzearen aurrekoak egon gabe.


Hortaz, txosten honen III. epigrafean aurretik esan den bezala, ez dago adierazle egokirik, laborategiak bateratzearen efizientziari eta eraginkortasunari buruzko ondorioak ematea ahalbidetzen digunik.

Txosten hau Karen Moreno Orduña auditoreak, lan honen arduraduna izan denak, proposatuta eman da, indarrean dagoen araudian aurreikusitako izapideak bete ondoren.


Iruñean, 2016ko ekainaren 7an.

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

I. ERANSKINA. O-NOZeko LABORATEGIEN 2011ko ANTOLAKETA-EGITURA



2. ERANSKINA O-NOZeko LABORATEGIEN 2014ko ANTOLAKETA-EGITURA



**3. ERANSKINA. LANPOSTUEN ETA PERTSONEN⁶ ABENDUKO KOPURUA, LABORATEGIETAN GAUZATUTAKO EGINKIZUNAREN ETA URTEKO GASTUA-
REN ARABERA (2011-2015)**

	2011				2012				2013				2014				2015			
	Lanpos- tuak	Pertsonak	Gastua		Lanpos- tuak	Pertsonak	Gastua		Lanpos- tuak	Pertsonak	Gastua		Lanpos- tuak	Pertsonak	Gastua		Lanpos- tuak	Pertso- nak	Gastua	
Zerbitzuburua BFE/AL	5	5	503.746		5	4	440.162		5	3	328.866		3	4	305.236		3	3	330.487	
Atalburua BFE/AL	1	1	92.510		1	1	81.050		3	2	169.037		6	5	443.277		5	5	405.432	
Arlo Klinikoko burua	1	1	99.655		1	1	95.550		1	1	102.767		1	1	102.202		1	1	106.651	
Lag. Zerb. burua	1	1	112.159		1	0	57.682													
Lag. Ataleko burua	2	0	98.271																	
BFE/AL	57	60	4.348.035		57	61	4.090.775		62	64	4.467.346		69	64	4.453.445		64	64	4.423.360	
Med. albokoa	3	3	159.321		2	2	134.206		2	2	155.895		1	1	138.159					
Eriz. Un. burua - I	2	2	100.617		2	2	94.693		2	2	101.880		2	2	103.932		2	2	108.017	
Eriz. Un. burua - II	4	4	245.744		4	4	249.183		4	4	242.986		4	4	245.827		5	4	248.164	
LTE	148	187	5.493.124		154	180	5.028.771		155	195	5.648.727		171	198	5.973.944		155	211	6.410.340	
OLT-EUD	60	69	3.079.516		59	66	2.701.806		54	71	2.839.950		55	63	2.712.460		61	80	2.780.106	
Erizaintzako lag.	27	35	851.607		24	37	789.421		24	36	822.206		24	37	830.488		23	32	704.517	
Osasun lag. TE	12	10	402.995		9	9	314.659		8	5	236.593		5	6	184.539		4	3	137.879	
Osasun lag.	1	1	10.945		1	1	23.791		1	1	27.337		1	1	27.343					
EZLT									1	1	9.787		3	4	26.039		10	8	147.857	
Administratari lagun- tzalea	17	21	534.335		17	24	468.923		17	29	551.873		17	26	519.007		17	34	523.156	
Administraria	2	3	65.812		2	2	66.166		2	2	65.014		2	2	65.277		2	2	55.829	
Of. administraria	1	1	37.617		1	1	35.909		1	1	39.407		1	1	38.351		1	1	40.047	
Zeladorea	3	7	101.186		3	7	92.794		3	9	109.370		3	7	107.187		3	7	116.964	
Guztira	347	411	16.337.194		343	402	14.765.541		345	428	15.919.040		368	426	16.276.713		356	457	16.538.807	

⁶ Adierazi diren zifrek ez dute islatzen lanaldi osoko langileen pareko kopururik, laborategietan abenduan lan egin duten pertsonena baizik.

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK

(Oharra: aurkeztu diren alegazioak Nafarroako Parlamentuaren webgunean kontsultatu daitezke: www.parlamentodenavarra.es/inicio/publicaciones/documentos.aspx).

BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA

Eskerrak eman nahi dizkiegu Marta Vera Osasuneko kontseilari ohiari, Ángel Sanz eta Cristina Ibarrola O-NOZeko zuzendari kudeatzaile ohiei, Ignacio Iribarren Nafarroako Ospitaleguneko kudeatzaile ohiari, Fernando Domínguez Osasuneko egungo kontseilariari eta haren taldeari, aurkeztu dizkiguten alegazioak prestatzeko egin duten ahaleginagatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eranstean zaizkio, eta hori behin betikotzat hartzen da, egindako fiskalizazioaren azalpena direlako eta ez dutelako edukia aldatzen, honako hauek izan ezik: gure txostenaren 24. eta 27. orrialdeetako bi datu –horiek aldatu dira– eta, hobeto ulertze aldera, beste hitz baten ordean erabili den hitza; hori guztia jarraian zehazten da.

OSASUNeko KONTSEILARI OHIAK ETA NAFARROAKO OSPITALEGUNeko KUDEATZAILE OHIAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEN ERANTZUNA

1. Kontuen Ganbera harrituta dago, alegazio horietan agertzen diren adierazpenak ikusita; izan ere, besteak beste, etengabe aipatzen da lantaldearen sentsazio pertsonalak erabili direla txostena egiteko orduan, datu objektiboen urritasuna aipatzen da hitz-erdika, zalantzan jartzen da lanaren norainokoa, eta abar. Kontuen Ganbera fiskalizazio organo bat da, auditoretzak egiten dituenak. Horregatik, haren lana araudi espezifiko bati lotuta dago, eta araudi horrek eskatzen dio, besteak beste, behar bezalako ebidentzia eskuratu beharra egin beharreko txostenetan konklusioak gehitzeko, haren lanaren norainokoa zehazteko eskumena izanda beti. Horregatik, ziurtatzen dugu txostenaren eduki osoa dagokien dokumentuetan (aktak, O-NOZek hainbat alderdi aztertzearen egindako txostenak, SAP aplikazioetatik ateratako informazioa, argitaratutako langile zerrendak eta abar) oinarritzen dela eta ez dela inoiz ere iritzi pertsonaletan oinarritu.

2. Mikrobiologia laborategia gure txostenaren kalkuluetan sartu da, aztertutako errektiboaren hornikuntzari buruzko esparru-akordioan adierazitakoaren arabera zerbitzu hori bateratzearen barnean baitzegoen, eta ez da baztertu Ganberak aztertu dituen ondoko aktetako bakar batean ere.

3. Adjudikazio irizpideak lau izan ziren, gure txostenaren 23. orrialdean azaltzen den bezala. Horien barnean, Kontuen Ganberak bai formulak aplikatuta automatikoki ebalua daitezkeen irizpideak (alderdi teknikoak) bai eskaintako eskaintzaren kalitate orokorra (alderdi teknikoak, eta proiektua instalazioetara egokitzea) batu zituen “eskaintza teknikoak” izenpean, haien edukia horrelakoa baitzen. Dena den, kontzeptu horren ordean, “irizpide teknikoak” erabili da txostenean, hobeto ulertze aldera, eta 24. orrialdean irizpide horiei buruz egindako gehieneko balorazioa zuzendu dugu. Esparru-akordioaren adjudikazioa eraundu zuen baldintza-orriak ez du gehitu aplikatu beharreko hobekuntzei buruzko irizpideak eskaintza teknikoaren barnean, alegazioetan aipatzen den bezala, kontzeptu hori ez baitzegoen baldintza-orri horretan; haren balorazioa irizpide subjektiboak ebaluatzearen txosten baten bidez egin zen, Nafarroako Ospitaleguneko kudeatzaile ohiak bere alegazioetan adierazi duen bezala eta Osasuneko kontseilari ohiak adierazi duen ez bezala. Azken horrek esan du ez dakiela zergatik eman nahi duen aditzera Ganberak atal horren balorazioak subjektibotasun izaera hori izan zuela.

4. Berrito diogu gomendagarria dela adjudikazioetan baloratutako diren alderdiak ahalik eta zehatzen adieraztea, Ganberan defendatzen baitugu lizitazio prozesuetan ahalik eta gardentasun handiena egotea.

5. Aurrezkiaren balioespenari dagokionez, alegazio horiek SAP ingurunearen kuboaren tresna aipatzen dute, Ganbera honek laborategien gastuaren aurrezki zehazteko informazioa eskuratzeko erabili izan duena, hain zuzen ere. Kuboaren tresna erabiliz lortzen den errektiboaren kontsumoaren zifra orokorra gure txostenean adierazten dena da. Baina kuboak ez dute adierazten gastuaren zein zati dagokion esparru-akordioan eskaintako lote bakoitzari, aurrezkiaren balioespenari buruzko txostenaren sinatzaileak, O-NOZeko zuzendari kudeatzaile ohiak bera, O-NOZeko hornidura zerbitzuaren langileak... bakar batek ere ezin izan digu hori justifikatu. Horregatik, berrito diogu ezin dugula kuantifikatu egon den aurrezkiaren, hori egon bada ere.

6. Aurrezkia bateratzearen ondorioz sortu dela esateari dagokionez, ez dugu horren frogarik, eta ez zaigu horrelakorik eman, nahiz eta horiek eskatu egin ditugun. Ez dakigu zer gertatuko zen, laborategiak bateratu ez arren, errektiboen erosketa zentralizatua egin izan balitz; eta ez dakigu aurrezkia gaur egun dagoena baino handiagoa ala txikiagoa izango zen. Ez da ahaztu behar esparru-akordioak eskatzen zuela jardueraren zati handienerako kate bakarra instalatzea, egokitzen lanak egitea eta abar. Eta, laborategiak bateratu ezean, horiek saihesteko moduko gastuak izango lirateke. Halaber, bateratzearen ondoriozko aurrezkiaren balioespen egokia egiteko, kontuan hartu behar ziren laborategiei lotutako gainerako gastuak; horietatik adierazgarrienak langileei lotutakoak ziren.

7. Laborategia Ikerketa Biomedikorako Zentroan kokatzeari dagokionez, alegazioek zehatzago azaltzen dute Ministerioaren eta O-NOZen artean gertatu dena, eraikin hori uzteko epe luzeagoak emanda, baina betiere kontuan hartuta Ministerioak 2017ko martxoaren ondoren kokapen hori utziko zelako adierazpen irmoa eskatzen zuela. Badirudi hori horrelakoa izango dela, Osasuneko egungo kontseilariaren alegazioak ikusita.

8. Kokatzeko aukeren balorazioari dagokionez, kontseilari ohiaren alegazioek esaten dute okerrekoa dela, ez baitira datu konparagarriak. Baina, gure txostenean zehazten den bezala, Ikerketa Biomedikorako Zentroko gastuak ekipamendua hartzen du barnean (Kontuen Ganberak 2015eko apirilean osasun azpiegituren kudeaketari buruz egindako txostenetik ateratako datua). Hori dela eta, kalkuluetarako proposatu diren zuzenketak ez dira zuzenak. Bai zuzendu dugu gure txostenaren 27. orrialdean larrialdietarako eraikin berriaren barnean erabiliko liratekeen metro karratu erabilgarrien kopurua, baina, nolanahi ere, aurreikusitako zifra txikitzean, are neurri handiagoan handituko litzateke metro karratuko kostua.

9. Berrito diogu beharrezkoa dela laborategien proiektuan buru jardungo duen arduradun bat egotea, txostenean adierazi bezala. Egungo Osasun Departamentuaren alegazioetan adierazten denaren arabera, hori lortuko omen da. Gai horri helduta, Osasuneko kontseilari ohiaren, Nafarroako Ospitaleguneko kudeatzaile ohiaren eta O-NOZEko zuzendari kudeatzaile ohiaren artean kontraesanak daude proiektuaren arduraduna nor zen zehazteko orduan, alegazioetan ikus daitekeen bezala.

10. Kontraesanak daude Osasuneko kontseilari ohiak eta Nafarroako Ospitaleguneko kudeatzaile ohiak teknikariek baldintza-orriak prestatzean parte hartu izanari buruz adierazi dutenaren artean. Horri dagokionez, Kontuen Ganberak berrito adierazten du gomendagarria dela teknikariek horiek prestatzean parte hartzea.

11. Amaitzeko, adierazi nahi dugu HDL kolesterola dela aurrezkiari buruzko txostenaren balioespenetan jarduera bikoiztua agertzen zuen zehaztapen analitikoa, balioetsitako jarduera justifikatze aldera Kontuen Ganbera honi eman zaizkion excel orrietan agertzen denaren arabera.

Iruñean, 2016ko ekainaren 7an.

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga

